

GRANDIR ET APPRENDRE HAZI ETA IKASI • CRÉISHER E APRÉNER



L'enfance, grande cause municipale
de Bayonne

Biharko hiriaren bihotzean da hezkuntza. Lehen haurtzarotik hasi eta bizitza osoan gaindi segitzeko. Hiriak, haurren denbora desberdinak jarraitzen, hezkuntzaz gozatzeko aukera berdinak denentzat eskaintzen, gazteak herritar gisa eraikitzen laguntzen jakin behar duen proiektu partekatuan sartzen da. Proiektu honen bitartez atrebentziaz aldarrikatzen dugun hautu politikoa, engaiamendua da Baiona, hazteko eta ikasteko baldintza onenak eskaintzen dituen hiria bilakaraztea.

Gure proposamenak:

a. Haurren eskubideak, herriko etxearen iparorratza.

- Haurren Adiskideen Manifestua onartu eta honen garapenaren alde jardun.
- Haurren eskubideak sustatu, babestu eta obratzea tokiko mailan xede duen haurren eskubideen ordezkariak sortu, Haurren eskubideen nazioarteko hitzarmenaren arabera.
- Herriko instituzioen haurren eta haien familien arteko zubi gisa baliatzen da, haurren boza, beraiek hunkitzen dituzten gaiak aipatzean entzuna izatea bermatuz.
- Hurrei jasanarazi bortizkerien aurkako herriko zaintza kolektiboa plantan ezarri, adingabekoeekin kontaktuan diren herriko etxeko langile guzien formakuntza jarraikian oinarritua. Entzumenean, seinale apalen hautematean eta zerbitzu eskudunekilako lankidetzan.
- Urteko ongizate bilana plantan ezarri haur bakoitzarentzat: eskolako zuzendaritzaz kanpoko profesional batek buruturik, buruko osasuna, familia barneko giroa eta segurtasun afektiboa ebaluatzeko. Ipar Europako hainbat herritan esperimenterik, seinale apalak hautemateko eraginkorra dela erakutsi du dispositibo honek.
- Harremanetarako Bizi afektiborako hezkuntza programa zinez plantan ezartzea lagundu, ama eskolan berean.
- Eskolako jazarpenaren prebentzioa ama eskolan jadanik: Hezkunde nazionalak ditu programa hauek plantan ezartzen, herriek sostengatzean funtsezko eginkizuna betetzen ahal dute. Ikasleak, irakasleak, eskolaldi inguruko animatzaileak eta bitartekariak biltzen dituzten ateleria parte-hartzaile erregularrak diruztatu eta antola ditzakete, erakunde eta elkarte adituekin partaidetzan. Jazarpen jarrerak ezagutzen, aitzinetik ikusten eta borrokatzen ikastea da ateleria hauen helburua. Finlandian edo Quebec-en parekoek garatu mediazio eredu frogatuetan oinarritzen ahal dira.

- Haur plazatuaren hurbileko jarraipena ezarri, aisialdian, kirol eta kultura aktibitateetan parte-hartzeko aukera bermatuz.
- Harrera familien eginkizuna balioan ezartzeko tokiko kanpainak, bokazio berriak sorrarazteko.
- Elbarritasun erreferenteak herri bakoitzean: elbarritasun egoeran dauden haurren ibilbideak koordinatzeko laguntza (jarraipena, eskolaldi inguruko aktibitateetan sarraraztea, materialaren egokiena) dedikatu elbarritasun erreferentea plantatuz.
- Sostengua eta segipena, EEIS-ak ordainduz denboraldi inguruko denboretan (eguerdiko pausak).

b. Besteez arta hartzen dutenez arta hartu

- ATSEM-ak sostengatu kalitatezko zaintza engaiatu baten alde
- Espazioen ergonomiaren hobekuntza: altzairu egokiak, mahai eta kadira erregulagarriak, atsedeen lekuak ATSEM-entzat, Gelen intsonorizazio hobea.
- Arrisku profesionalen prebentzioa: zinezko prebentzio eta segipen politika bat eraman: ekipamendu bereziak, postuen antolamendua eta osasun bilan erregularrak gihar-eskeletiko arazoei aitzinetik aurre egiteko.

c. Gure haurren lehen urteak segitzen dituen hiria

Lehen haurtzaroko urteak funtsezkoak dira haurraren garapenerako, horrela, baitezpadakoa da guraso gazteei haurrak zaintzeko aterabide egokiak leku guzietan eta familia guzientzat eskaintzea. Baina ere sektoreko profesionalei lan baldintzak hornitzea, haurtzaindegia eta ama eskolaren artean 0-6 urtekoentzat jarraikitasun helburu bat bilatzeko haurrei harrera pertsonalizatua bermatzeko gisan:

- Haurtzain Etxeen garapena bezalako profesionalen bateratze proiektuak segitu.
- Haurtzaindegietan diren lekuak emateko arauetako sozial irizpideak berriz kontutan hartu.
- Lehen haurtzaroan dagoen logika komertzialaren aurka egin eta haur guzientzat kalitate pedagogikoa, eskuragarritasuna eta zuzentasuna uztartuz herriko etxeak kudeatu lehen haurtzarorako, denen eskura egon daitekeen eskaintza publikoa defenditu.
- Haur ttipien harreraren baitan osotzen diren ibilbide indibidualizatuak eta kolektiboak apailatu.
- Etxeko haurtzainak sostengatu haurren harrerari egokia den bizitegiari lehentasuna emateko.
- Lehen haurtzarotik hezkuntza jarraikitasuna (artistiko eta sentzoriala/natura eta motrizitate/kulturartekoa) lehenesten duen « belaunaldi berriak » klase pasabide berritzaileak abian ezarri Hezkunde nazionalarekin, lehen haurtzaroko profesionalek eta eragile sozialek elkarrekin animatuak, lehen urtean sartzean hizkuntza desberdintasunak murrizteko.
- Gaur egun eskaera baino askoz apalagoa den euskarazko harrera eskaintza garatu.

d. Baionako eskola: elkarrekin erabakitzen eta bizitzen den proiektua

Hezkuntza galdera, Hiriaren eskumen zorrotzetatik harago pausatzea ere suposatzen duen proiektu kolektiboa da biharko eskolaz dugun ikuspegian. Honetan irakasleek, gurasoek, elkarrekin eta haurrek proiektua kausitua izateko elkarrekin jarduten dute. Haurren munduan

eragile osoa den kolektiboa, besteekin eta besteei esker ikasteko asmoarekin, lehiaketa logika batetik ateraz berdintasuna garatuko duen elkarlan batera buruz jotzeko. Familia eta Eskolaren arteko konfiantza atsarrean datzan gobernantza hau biziaraztera hitzartzen gara: bakoitzak helburu bateratu baten eta interes orokorraren alde ekiten du.

- Herriko Etxe-Eskolen arteko ekintzen koordinazioa hobetu Eskoletako Kontseiluen baitan.
- Urteko funtzionamendu buxeta autonomia eskaini eskoletako kontseiluei.
- Sostengu administratiboa ekarri eskola zuzendariei.
- Zinezko lurraldeko zientzia ibilbidea eraiki, ama eskolatik kolegiara, bokazioa sustatzeko eta zientzia jakintzez gozatzeko berdintasuna denei eskaintzeko.
- Hezkuntza aliantzak azkartzeko profesionalen formakuntza segitu.
- Eskolei eskaini buxeta parte-hartzaile bereziak proposatu haurren eta gurasoen boterea sostengatzeko.
- Eskoletan lan egiten duten herriko langileei (ATSEM, animatzaileak, garbiketako langileak, jantegia, kirol hezitzaileak...)
- Irakaskuntza elebiduna garatu auzotegi guzietan denei eskuragarri bilakaraziz.
- Euskararen irakaskuntza murgiltze sisteman garatu
- Eskolatze behatoki bat sortu jendarte mistotasuna ebaluatzeko eskoletan.
- Eskola kartaren malgutze kontrolatua esperimendatu.
- Haien auzotegitik kanpo kokatuak diren eskoletara joateko, ikasleen garraioaren plantatzea esperimendatu, eskola ghettoizazioa saihesteko.

e. Ikasketak errazten dituzten esparruak antolatu, urgentzian burutu beharreko geure eskolen zaharberritzetik hasiz.

Gure Baionako eskolak zaharkituak dira eta ez dituzte harrera baldintza onenak eskaintzen gure haurren etorkizunari begira energia anitz enpoiltzen dutelarik aldi brean. Hau, guretzat, lehenetsunetan sartuko da, espazioen berrantolaketa pedagogiko batekin batera haurren eta hezkuntza taldeen beharrei egokiak zaizkien ikasketak lehenesteko.

- Ikasteko behar bezalako baldintzak, udan bezainbat neguan ere, ahalbidetuko dituen eskolen zaharberritze plan zabala abiatu.
- Eskoletako korraleen begetalizazioa segitu, gaur egun kontutan hartuak ez diren erabilpen jostagarri eta pedagogiko berriak integratuz.
- "Klaseak kanpoan" gure eskoletatik hurbil diren naturako eremu publikoetan antolatu eta bertako sarbideak segurtatu.
- Hiriko antolamenduak haurren goratasunetik egokitu. Ikuspegi horren xedea ez datza bakarrik joko eremuak plantatzean baina bai eremu publiko guzira birgogotatzean, helgarria, segurua, sustagarria eta inklusiboa izan dadin. Esplorazio eta ikasketa lekuak bilakatzen ahal dira hiriko eremuak: joko eremu inklusiboak (elbarritasun egoeran dauden haurrei egokiak) hiriko higigarri inklusiboak, elementu naturalak (ura, hondarra, landareak), berezko jokoak bultzatzen dituzten freska eta zoruko markaketak.
Jokoak hirian berean, eta ez bakarrik eremu hetsi eta dedikatuetan, integratzea da ideia.
- Euskararen eta gaskoi hizkuntzaren presentzia azkartu eremu publikoko seinaleketan.
- « Josta, pentsa, mintza » guraso/haur ateleriak plantan ezarri gure parke edo natura lekuetan, garapen psikiko, kognitibo eta mintzamenarena sustatzeko.

- Familia barneko elebitasuna lehenetsi programa dedikatuen bitartez (informazio kanpainak, gidaliburuak) eta segipen berezia proposatu beste hizkuntza bat duten haurrentzat (FLE klaseak, mintzaira nahasmenduen detekzioa, familien hizkuntza segipena, etab...).
- Hurbileko guraso taldeak sortu parekoen arteko esperientziak eta elkarlaguntzari lehentasuna emateko (Australia eta Finlandiaren adibidea).